

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaierako Eskubidea



Prentsa-dosierra

2017ko urria

International Association of
Educating Cities
Association Internationale des
Villes Éducatrices
Asociación Internacional de
Ciudades Educadoras





Edukia:

1. Nor gara?
2. Zein dira gure helburuak?
3. Zer da Hiri Hezitzailea?
4. Zer proposatzen du Hiri Hezitzaileen Kartak?
5. Zergatik ospatu behar dugu Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Eguna?
6. Noiz ospatuko da?
7. Non ospatuko da?
8. Zer motatako jarduerak antolatuko dira 2. edizioan?
9. Zer gertatu zen nazioarteko egunaren lehenengo edizioan?
10. Hiri Hezitzaileako Eskubidea, 2017ko edizioaren goiburua
11. Zer eginkizun betetzen dute tokiko gobernuek Hiri Hezitzailean?
12. Zein da eskolaren eta familiaren eginkizuna Hiri Hezitzailean?
13. Zein da gizarte zibilaren eginkizuna Hiri Hezitzailean?
14. Zergatik da ezinbestekoa hiritarren parte-hartzea Hiri Hezitzailearen eraikuntzan?



edcities@bcn.cat

+34 93 3427720

www.edcities.org

<http://www.edcities.org/dia-internacional/>

[@educatingcities](https://www.edcities.org)

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaileako Eskubidea





1. Nor gara?

Hiri Hezitzaileen Karta betetzeko konpromisoa hartu duten tokiko gobernuak biltzen dituen irabazi asmorik gabeko erakundea da Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkarte. Hiri Hezitzaileen Karta horixe da, hain zuzen, mundu-mailako mugimendu horren ibilbide-orria, 1990ean egin zen Hiri Hezitzaileen Nazioarteko I. Biltzarrean abian jarri eta 1994an elkarte gisa eraiki zen mugimenduarena, alegia.

Gaur egun, kontinente guztietako **36 herrialde**tako **490 hiri** dira elkarteko kide. (Hemen duzue zerrenda osoa: <http://www.edcities.org/listado-de-las-ciudades-asociadas>)

Hainbat tokitako 15 hirik osatzen dute elkartearen Batzorde Exekutiboa, eta batzorde hori arduratzen da AICE zuzentzeaz, kudeatzeaz eta ordezkatzeari. Hiri hauek dira, gaur egun, batzordeko kideak: Bartzelona (Espainia), Cascais (Portugal), Changwon (Koreako Errepublika), Granollers (Espainia), Lisboa (Portugal), Lome (Togo), Medellin (Kolonbia), Morelia (Mexiko), Porto (Portugal), Rennes (Frantzia), Rosario (Argentina), Santo Andre (Brasil), Sorocaba (Brasil), Tampere (Finlandia) eta Turin (Italia).

2. Zein dira gure helburuak?

- Hiri Hezitzaileen Kartan ezarritako printzipioak betetzeko lan egitea.
- Elkarrizketa, hausnarketa, trukea eta lankidetzaren sustatzea Hiri Hezitzaileen artean.
- Tokiko gobernuak heziketa-eragile gisa betetzen duten zeregina nabarmentzea, eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko oinarrizko eragile gisa ezagutaraztea.
- Erakundeen ahalmena indartzea, eta gobernamendua hobetzea kide diren hirietan.
- Tokiko gobernuen ahotsa nazioarteko nahiz naziko instantzietara eramatea, kide diren hirientzat interesekoak diren gaietan.

3. Zer da Hiri Hezitzailea?

Gizartea eraldatzeko tresna gisa hezkuntzaren (hezkuntza formala, ez-formala eta informala) aldeko apustua egiten duen hiria da, lurraldean eragina duten ahalik eta heziketa-eragile gehien mobilizatuz eta antolatuz. Bizitza osora zabaltzen den eta hiriko bizitzako hainbat eta hainbat arlotan eragina duen hezkuntzaz ari gara.

Inklusioa eta aukera-berdintasuna, justizia soziala, demokrazia parte-hartzailea, kultura arteko bizikidetzaren, belaunaldien arteko elkarrizketa, bizimodu osasungarri eta iraunkorra, hiri iritsi-erraz eta interkonektatu baten plangintza, lankidetzaren, bakea eta horrelako balioak indarrean dauden hiri-eredu batekin konprometituta egotea eskatzen du horrek. Hiri Hezitzaileen Kartan jasota dauden printzipioak dira guztiak.

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaileerako Eskubidea





6. Noiz ospatuko da?

Jarduerak **azaroaren 30ean** egingo dira, 1990. urtean egun horretan Bartzelonan Hiri Hezitzaileen Karta aldarrikatu zela ospatzeko; hala ere, aste osora zabal daitezke jarduerak. Hiri guztietako jarduerak egun berean garatuz elkarrearen izaera globala ikusarazi nahi da.

7. Non ospatuko da?

Parte hartzera gonbidatuta daude elkarteko hiri guztiak, eta baita bizitza osoan zehar eta guztiontzat kalitatezko hezkuntza inklusiboa oinarri hartuta garapen pertsonalerako eta kolektiborako aukerak eskaintzen dituzten hiriak eraikitzeke konpromisoa hartu nahi duten gainerako hiri guztiak ere.

8. Zer motatako jarduerak antolatuko dira 2. edizioan?

Aurtengo edizioan, hiriko hezkuntza-eragileek –hezkuntza formalekoek nahiz ez-formalekoek– betetzen duten zeregina aitortuko duen adierazpen bat jendaurrean irakurtzea proposatu da. Adierazpena irakurri ondoren, herritarrek hautatutako pertsona, talde edo erakunde jakin batzuei zuzendutako txalotze-ekitaldi kolektiboa egingo da.

Bestalde, herritarrak Hiri Hezitzailearekin konpromisoa hartzeko deialdia egingo da; horren adibide da #YoMeComprometo kanpaina. Gure proposamena kanpaina horren buruak alkatea bera eta horren udal-taldea izatea da, eta edozein herritarren eskura egongo den ekintza hezitzaile batekin konpromisoa hartzeko gonbita egiten zaie (esate baterako: garraio publikoan edo bizikletaz joatea lanera, espazio publikoa garbi izaten laguntzea, etxean hondakinak bereiztea, etab.).

Aurtengo edizioan, beste proposamen berezi bat ere egingo da: hiriei beste hiri hezitzaile batek garatutako jardunbide on bat errepikatzeke gonbita egiten zaie. Honako proposamen hauek ditugu:

- **Metrominuto** (Pontevedra, España): erraz irakurtzeko moduko mapa bat da, oinezkoen mugikortasuna sustatzeko helburua duena. Hiri-garraioko planoetan oinarritutako diseinua du mapak, eta ekipamenduen, garraio publikoen, merkataritzaguneen, zerbitzuen eta abarren artean zenbateko distantzia dagoen eta distantzia hori oinez egiteko zenbat denbora behar den adierazten du, horrela, interesgune batetik beste batera joateko denbora desmitifikatzeko eta ibilbide horiek oinez egin daitezkeela ikusarazteko.
- **Night run** (Torres Vedras, Portugal): gaueko ibilbideak hirian zehar; bizi-estilo osasungarria sustatzea dute helburu, bai eta hiria hobeto ezagutzea eta espazio publikoaz jabetzea ere. Monumentu bat, eraikin enblematiko bat edo beste puntu interesgarriren bat hautatzen da astero, parte-hartzaileak handik igaro daitezzen eta hiriko txokoak ezagutzeko aukera izan dezaten.

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaileerako Eskubidea





- **Biblioteca Humana** (Mexiko DF): *Biblioteca Humana* liburutegian kontsultatzen diren liburuak “giza liburuak” dira; beren egoera pertsonalaren edo baztertua izan den talde bateko kide izatearen ondorioz, kontatzeko zerbait duten pertsona boluntarioak dira, eta liburu bihurtzen dira. Proiektu honek aurreiritziak eta estereotipoak murrizteko aukera ematen du, eta elkarrizketa eta elkar ulertzea sustatzen du.

Ekintza horiekin batera, kulturarekin, jolasarekin eta jai-giroarekin lotutako beste jarduera asko garatuko dira, espazio publikoa sustatzeko eta hiriak hezkuntzarekin duen konpromisoa ikusgarri egiteko asmoz.

9. Zer gertatu zen nazioarteko egunaren lehenengo edizioan?

18 herrialde **142 hiritako** alkateek bat egin zuten lehenengo edizioaren ospakizunarekin. Beste erakunde batzuen atxikipena ere izan genuen, hala nola ONU-Hábitat, Ciudades y Gobiernos Locales Unidos (CGLU), ICLEI edo Mercociudades erakundeena, bai eta mundu osoko adituena ere.

Parte hartu zuten hiriek askotariko ekintzak antolatu zituzten, adin guztietako pertsoneri zuzendutakoak: hitzaldiak, lantegiak, elkarrizketak, erakusketak, estudioko bisitak, atea zabaltzeko egunak, jarduera ludiko eta kulturalak espazio publikoan, zineforumak, literaturaren inguruko debateak, kontzertuak, eskualdeen eta nazioen arteko topaketak nahiz nazioartekoak, kide diren hirien artekoak, etab.

Lehenengo edizioari buruzko informazio gehiago duzue honako helbide honetan: <http://www.edcities.org/dia-internacional/>.

10. Hiri Hezitailerako Eskubidea, 2017ko edizioaren goiburua

Hiri Hezitailerako Eskubidea hezkuntzarako oinarritzko eskubidearen luzapen moduan proposatzen da; hezkuntzarako eskubide hori 1948ko **Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak** jaso zuen.

Biztanle guztiek izan behar dute hezkuntzarako eskubidea, adina, generoa, jatorri etnikoa edo kulturala edo maila sozioekonomikoa arrazoi direla inor baztertu gabe. Aldi berean, prestakuntzarako aukerak ez dira prestakuntza arautura mugatzen, eta hainbat hezkuntza-aukera hartzen dituzte barnean bizitzan zehar; tokiko gobernuek hezkuntzaren, kirolaren eta kulturaren esparruko nahiz gizarteko, enpresa-ehuneko, komunikabideetako eta abarreko beste erakunde, elkarte eta talde batzuekin batera eskaintzen dituzte aukera horiek.

Nazioarteko egunaren lehenengo edizioan tokiko gobernuen hezkuntza-zeregina aldarrikatu genuen, eta, oraingo edizio honetan, hezkuntza-eragileen zeregina

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitzaileako Eskubidea





azpimarratu nahi dugu, tokiko gobernuen ezinbesteko aliatuak baitira **Hiri Hezitailerako Eskubidea** gauzatzeko proiektu partekatuan.

11. Zer eginkizun betetzen dute tokiko gobernuek Hiri Hezitzailean?

Ezaugarri hori beren izenari atxikitzen dioten tokiko gobernuek **beren proiektu politikoaren ardatz nagusi dute hezkuntza**. Udaleko instantzietatik eta zerbitzuetatik (hirigintza, ingurumena, mugikortasuna, kultura, kirola, osasuna, etab.) proposatzen eta abian jartzen diren politikak eta jarduketak balio zehatz batzuk helarazten dituztela eta balio eta jokabide horietan hezten dutela jabetu beharra dakar horrek.

Eta, horrez gain, gaur egun oraindik hirietan dauden hezkuntzaren kontrako fenomeno eta faktore ugari indargabetzeko lan egiteko konpromisoa ere eskatzen du (besteak beste, indarkeria, arrazakeria, desoreka, auzoen bereizkeria, autoek oinezkoekiko duten nagusitasuna, espazio publikoen pribatizazioa eta hondatzea, etab.). Erronka garrantzitsu horiei aurre egiteko, ezinbestekoa da sailak beren artean koordinatuta egotea eta zeharkako lanaren aldeko apustua egitea. Eta baita gizarte zibilarekin sinergiak batuz jardutea ere.

Tokiko gobernuek, beraz, hiri-eredu horrekiko konpromisoa hartzen du lehenik eta behin, eta hezkuntza-eragileen –publiko eta pribatuen– tokiko sare handi bat antolatuko du hiriko espazioa espazio hezitzaile bilakatzeko proiektu bateratuaren inguruan; ezagutzak eta jakintzak barnerratzeko aukera eskaintzeaz gain, balioak eta jarrerak transmitituko ditu, pertsonak beren gaitasunak garatzeko, duintasunez bizitzeko eta lan egiteko edota beren hiriaren garapenean laguntzeko aukera izan dezaten.

12. Zein da eskolaren eta familiaren eginkizuna Hiri Hezitzailean?

Familia eta eskola dira pertsonen sozializatorako eta heziketarako lehenengo esparruak. Hiri hezitzaileak horiek betetzen duten funtzio garrantzitsua aitortzeaz gain, ikasgela handi bilakatu nahi du hiria, guztiok, txikiak zein zaharrek, hiriko monumentu eta eraikin ospetsuetatik ikasteko aukera izan dezagun, edota museo eta kultura-zentroetatik, parke eta lorategietatik, erakunde eta zerbitzuetatik, kaleen trazaduratik eta lekualdatzeko aukera eskaintzen digun garraio publikotik nahiz hirian bizi edota lan egiten duten pertsonengandik.

Hiri hezitzailean, beraz, atek irekitzen ditu eskolak, hirian eginkizun hezitzailea duten beste erakunde eta eragile askoren babesa jasotzeko, eta guztien artean hobeto prestatutako hiritar kritiko eta erantzunkideak, XXI. mendeko erronkei aurre egiteko gai direnak, prestatzeko.

**Hiri Hezitzailearen
Nazioarteko Eguna**
#EducatingCityDay
2017ko azaroaren 30a
Hiri Hezitailerako Eskubidea



